

46/2014 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, «Kabia» Foru Organismo Autonomoaren Estatutuak onartzekoa.

(20 zk.ko GAO, 2015ko otsailaren 2koa)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2014ko azaroaren 6ko 12/2014 Foru Arauaren bidez (2014ko azaroaren 7ko 213 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI Ofiziala), «Kabia» izeneko foru organismo autonomoa sortu da, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.

Aipatu foru arau horren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat, foru dekretu honen bidez «Kabia» foru organismo autonomoaren Estatutuak onartzen dira, bere araubide organiko eta funtzionala arautzen dutenak.

Horiek horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluan gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT

«Kabia» Artikulu bakarra. foru organismo autonomoaren Estatutuak onartzea.

2014ko azaroaren 6ko 12/2014 Foru Arauak sortutako «Kabia» foru organismo autonomoaren Estatutuak onartzen dira, bere araubide organiko eta funtzionala onartzen dutenak. Estatutuak foru dekretu honen eranskin gisa gehitzen dira.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

KABIA FORU ORGANISMO AUTONOMOAREN ESTATUTUAK

Aurkibidea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

II. kapitulua. Funtzioak eta ahalak.

III. kapitulua. Antolamendua eta funtzionamendua.

1. atala. Xedapen orokorrak.

2. atala. Gobernu Batzordea.

3. atala. Lehendakaria eta lehendakariordea.

4. atala. Kudeatzailea.

IV. kapitulua. Ondare erregimena.

V. kapitulua. Langileen erregimena.

VI. kapitulua. Euskaraz jakitea eta euskara erabiltzea.

VII. kapitulua. Ekonomia eta aurrekontu erregimena.

1. atala. Kontratazioa eta ogasuna.

2. atala. Kontabilitatea eta kontrola.

3. atala. Aurrekontu erregimena.

VIII. kapitulua. Organismo autonomoaren estatutuak aldatzea eta desegitea.

Xedapen gehigarri bakarra.

Xedapen iragankor bakarra.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izaera, sailkapena eta erregimen juridikoa.

1. «Kabia» foru organismo autonomoa, aurrerantzean organismo autonomoa, 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearenak, ezarritakoaren arabera eratutako entitatea da, eta helburu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Legebiltzarren Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen eskumen esparruan agintzen dizkion zerbitzuak eta funtzioak kudeatu, eman eta exekutatzeko.

2. Organismo autonomoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari atxikita dago, funtzioen deszentralizazio erregimenean; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko instrumental propiotzat hartzen da helburu dituen gaietarako.

3. Organismo autonomoak nortasun juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa, ondare eta diruzaintza propioak eta kudeaketarako autonomia izango ditu, ematen zaizkion funtzioak eta eskumenak betetzeko, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

4. Organismo autonomoa estatutu hauek arautzen dute, eta, halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak eta zuzenbide administratiboko gainerako xedapenek; eta, bere eskumenen barruan, ezarri zaizkion helburuak betetzeko behar dituen ahal administratiboak dagozkio, aplikatzekoak zaizkion arauetan aurreikusitakoaren arabera.

2. artikulua. Egoitza.

Organismo autonomoak Donostian izango du egoitza soziala, Gipuzkoako Lurralde Historikoan beste ordezkari batzuk ezartzea eragotzi gabe. Gobernu Batzordeak erabakiko du egoitza lekuz aldatzea, baina beti ere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan.

3. artikulua. Iraupena.

Foru organismo autonomoa iraupen mugagabeko organismo autonomo gisa konfiguratzeko da.

II. KAPITULUA. FUNTZIOAK ETA AHALAK

4. artikulua. Foru organismo autonomoaren funtzioak.

1. Kontuan izanda Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak lurralde historikoei gizarte zerbitzuen arloan esleitutako eskumenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak organismoari eman diezazkion funtzioak, organismo autonomoaren helburua da gizarte zerbitzuen kudeaketaren, prestazioaren eta exekuzioaren esparruan dagozkion zerbitzuak, programak eta jarduerak modu deszentralizatuan gauzatzea. Aginduko zaizkion funtzioen artean sartuko da:

a) Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak emateko zerbitzu espezifikoak exekutatzea.

b) Bigarren mailako gizarte zerbitzuak emateko jarduketaren planak sustatu eta garatzea.

- c) Plan horiek giza baliabidez eta baliabide materialez hornitzea.
- d) Jarduketa plan horien helburuak eta bukaera ona zaintzea.
- e) Organismo autonomoaren beraren zentroak kudeatu eta ustiatzea.
- f) Organismo autonomoari atxikitako ondasunak kudeatzea.
- g) Gizarte zerbitzuak ematearekin lotutako azterlanak, txostenak, estatistikak eta bestelako jarduerak egitea.
- h) Bere funtzioak betetzeko behar eta komeni den guztia egitea.

Era 2. berean, organismo autonomoak kudeaketa mandatu bidez egin ahal izango ditu beste administrazio publiko baten eskumeneko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak.

Gipuzkoako 3. Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez definitu eta aginduko zaizkio zerbitzuak, programak eta jarduerak organismo autonomoari; erabaki horietan, egotzitako funtzioaren eta eskumenaren erregimen zehatza ezarriko da.

5. artikulua. Zerbitzuak, programak eta jarduerak.

1. Bere helburuak lortzeko, organismo autonomoak bere gain hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako erabakien bidez zehaztu eta agindutako gizarte zerbitzu, programa eta jarduerak kudeatzea, ematea eta gauzatzea.

2. Hori dela eta, estatutu hauen eta aurreko paragrafoan aipatzen diren akordioen esparruan, organismo autonomoak agintzen zaizkion zerbitzu, programa eta jarduerak egiteko agindu dezake eta horretarako, egokitzat jotzen dituen antolaketa eta funtzionamendu arauak ezar ditzake.

3. Era berean, egoki deritzen lankidetzaharremanak ezarri ahal izango ditu entitate publiko nahiz pribatuekin.

6. artikulua. Administrazio ahalak.

1. Bere funtzioen barruan, jarraian zehazten diren administrazio ahalak izango ditu organismo autonomoak:

- a) Estatutuen eta foru jarraibideen barruan bere burua antolatzeko ahalak.

- b) Kudeatzen dituen zerbitzuei buruzko arauak emateko ahala.
- c) Administrazio egintzak zuzenbidearen arabekoak eta bete beharrekoak direla jotzeko ahala.
- d) Administrazio egintzak nahitaez betearazteko eta ofiziozko berrikusteko ahala.
- e) Araudiak aurreikusitako kasuetan zehatzeko ahala.
- f) Erakundeko langileen gaineko diziplinazko ahala, legeek ezarritakoari jarraituz.
- g) Esleituta dituen zuzenbide publikoko diru sarrerak biltzeko ahala.
- h) Indarrean dagoen araudiak organismo autonomoei esleitzen dien bestelako edozein ahal administratibo.

Estatu 2. hauetan zehazten da ahal horiek egikaritzea zein organori dagokion.

III. KAPITULUA. ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK.

7. artikulua. Gobernu eta zuzendaritzako organoak.

Hauek dira organismo autonomoaren gobernu eta zuzendaritzako organoak:

- a) Gobernu Batzordea.
- b) Lehendakaria.
- c) Lehendakariordea.
- d) Kudeatzailea.

2. ATALA. GOBERNU BATZORDEA.

8. artikulua. Osaera.

Gobernu Batzordea da organismo autonomoaren gobernu eta zuzendaritzako kide anitzeko organo gorena. Berari dagokio organismoak esleituta dauzkan helburuak lortzen direla zain-tzea, eta honako kide hauek izango ditu:

— Lehendakaria: organismo autonomoko lehendakaria. Gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko titularra izango da.

— Lehendakariordea: organismo autonomoko lehendakariordea. Zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko zuzendari nagusi bat izango da.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren 5 ordezkari, kudeaketa arlo hauetakoak: gizarte zerbitzuak, funtzio publikoa, ondarea, eta finantzak eta aurrekontuak.

— Gizarte zerbitzuen arloan entzute handia duten pertsonen artean Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeek izendatutako ordezkari bana.

— Organismo autonomoko langileen ordezkari sindikal bat.

— Organismo autonomoko kudeatzailea, zeina agertuko baita Batzordearen bileretara hitza-rekin baina botorik gabe.

9. artikulua. Batzordekideak izendatzea eta kargutik kentzea.

1. Gobernu Batzordeko kideak pertsona fisikoak izango dira, artikuluko honetako 7. eta 8. apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe; Gobernu Batzordeak izendatutako ditu eta, kasua denean, kargutik kendu, eta ez da ordezkorik izendatuko.

2. Lehendakariordea eta kudeatzailea, gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak proposatuta izendatuko dira.

3. Kudeatzaileari dagokionez, estatutu hauetako 16. artikuluan aurreikusitako erregimena aplikatuko da.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Diputatuen Kontseiluaren proposamenari jarraituz izendatuko dira.

5. Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeen ordezkariari dagokienez, batzarkide talde bakoitzak egindako proposamenari jarraituz izendatuko dira.

6. Organismo autonomoko langileen ordezkari sindikala, organismo autonomoko langileen batzordeak proposatuta izendatuko da.

7. Postu hutsak geratzen direnean, izendapen partzialak egingo dira agintaldia amaitu arte.

8. Batzordekideen kargualdia 4 urtekoa izango da, eta automatikoki utziko diote kide izateari, baita lehendakariak ere, batzordekide izendatuak izateko zuten karguaren titular izateari uzten diotenean, eta, lehendakariorde kargua duen zuzendari nagusiaren kasuan, baita gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak hala erabakitzen duenean ere.

10. artikulua. Eskuduntzak eta egintzen izaera.

1. Gobernu Batzordeari dagokio:

- a) Gobernu Batzordea eratzea eta barne erregimeneko araudia onartzea.
- b) Organismo autonomoaren lerro estrategikoak onartzea, aldatzea eta berrikustea.
- c) Organismo autonomoaren urteko aurrekontuaren aurreproiektu proposamena onartzea.
- d) Organismo autonomoaren jardueren memoria onartzea.
- e) Organismo autonomoaren diru sarrera izango diren tasa eta prezio publikoen proposamena onartzea.
- f) Gastuak baimentzea eta xedatzea, gainerako organoek gai horretan dituzten eskuduntzei kalterik egin gabe.
- g) Kontratazio espedienteak onartzea, gainerako organoek gai horretan dituzten eskuduntzei kalterik egin gabe; eskuduntza honen barruan inplizituki sartzen dira gastuak onartzeko ahalmena eta kontratuen arloko legeriak kontratazio organoari ematen dizkion gainerako ahalmen guztiak.
- h) Langileen plantilla, lanpostuen zerrenda eta langileen ordainsariak onartzea, Diputatuen Kontseiluak onartutako lanpostuen egituraren arabera.
- i) Langileak aukeratzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako oinarriak onartzea, merezimendu eta gaitasun printzipioak, egokitasun irizpideak, eta publizitatea eta lehia bermatzen duten prozedurak erabiliz.
- j) Langileen izendapenak eta kargugabetzeak egitea.
- k) Organismo autonomoko langileen lan baldintzak onartzea, hitzarmen kolektiboaren edo akordio arautzailearen bidez.

l) Organismo autonomoaren egoitza soziala aldatzea.

m) Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea beste administrazio publiko batzuekin zein erakunde pribatuekin, organismo autonomoaren zereginen barruan, gainerako organoek gai horretan dituzten eskumenak alde batera utzi gabe.

n) Era guztietako akzioak egikaritzea: administratiboak, judizialak eta estrajudizialak.

ñ) Zerbitzuei eta barne antolaketari dagokionez administrazio eskumenak gauzatzea.

o) Estatuaren aldaketa proposamena onartzea.

p) Organismo autonomoa desegiteko proposamena onartzea.

q) Estatutu hauek gobernuari dagokionez esleitzen dizkion eskumenak eta indarrean dagoen legediak berariaz ematen dizkionak.

2. Gobernu Batzordeak artikuluko honetako 1. zenbakiko j), m) eta n) letretan aurreikusitako eskumenak organismo autonomoaren gobernu eta zuzendaritzako beste organo batzuei esleitu ahal izango die.

3. Gobernu Batzordeak idazkari batek lagunduta jardungo du. Idazkariak egingo ditu 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 25. artikuluko 3. puntuan aurreikusitako funtzioak eta lege aholkularitza-ak, hala eskatzen zaionean. Idazkari kargua organismo autonomoko arlo juridikoko karrerako funtzionario batek bete beharko du.

4. Gobernu Batzordeak bere eskumenei jarraituz hartzen dituen erabakien eta abian jartzen dituen administrazio egintzen aurka errekurtsoa jarri ahal izango da 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, eta 1998ko uztailaren 3ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutakoari jarraituz.

11. artikulua. Gobernu Batzordearen funtzionamendua.

1. Gobernu Batzordea bilduko da lehendakariak deialdia eginda, eta, gutxienez, sei hilabetez behin ohiko bileran.

2. Gainera, Gobernu Batzordeak behar beste aparteko bilera egingo ditu erakundeak behar bezala funtziona dezan.

12. artikulua. Deialdia eta gai zerrenda.

1. Lehendakariari dagokio Gobernu Batzordearen bileretarako deialdia egitea eta gai zerrenda zehaztea.
2. Behar adinako aurrerapenez prestatu eta jakinarazi beharko dira deialdia eta gai zerrenda.

13. artikulua. Erabakiak hartzeko erregimen juridikoa.

Gobernu Batzordeak eraketa, funtzionamendu eta erabaki-hartzeko erregimen hau izango du: 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, II. Tituluko II. Kapituluan izaera orokorrarekin xedatutakoa, edo erregimen juridikoaren oinarriak dituela hura legez ordeztu duenak xedatutakoa, horregatik kalterik egin gabe estatutu hauetan eta, halakorik egonez gero, barne erregimeneko araudian zehaztutakoari.

3. ATALA. LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA.

14. artikulua. Lehendakariaren identitatea, eskuduntzak eta egintzen izaera.

1. Organismo autonomoko lehendakaria gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko titularra izango da.
2. Lehendakariari ahalmen hauek dagozkie:
 - a) Organismo autonomoa ordezkatzeko era guztietako negozio juridikoetan, publikoak nahiz pribatuak izan; prokuradoreei eta abokatuei mandatuak eta ahalordeak emateko ahalmena izango du, haiek bera ordezkari izaten, babes dezaten eta lagundu diezaioten.
 - b) Gobernu Batzorderako deia egin eta bertan mahaiburu aritzea; bileretako gai zerrenda ezarri, eta bilerak ireki eta etetea; deliberazioak zuzentzea; berdinketak bere kalitateko botoarekin ebaztea; eta bilera horietako aktak ikus-onestea.
 - c) Organismoaren helburuak –estatutuaren eta estatutuok garatzeko arauetan xedatuak– betetzen direla zaintzea.
 - d) Gobernu Batzordeari antolamendu egitura proposatzea.

e) Organismo autonomoaren urteko aurrekontuaren aurreproiektuaren eta urteko kontuen proposamena Gobernu Batzordera eramatea.

f) Gastuak baimentzea eta xedatzea, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko titularrarentzat adierazitako zenbatekoan.

g) Kontratazio espedienteak onartzea, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko titularrarentzat adierazitako zenbatekoan; eskuduntza honen barruan inplizituki sartzen dira gastuak onartzeko ahalmena eta kontratuen arloko legeriak kontratazio organoari ematen dizkion gainerako ahalmen guztiak.

h) Organismo autonomoaren betebeharrak ekonomikoak aitortzea eta aurrekontuko gastuen ordainketa agintzea.

i) Negoziazio kolektiboko jardueren garapena enkargatzea, eta lortutako akordioak Gobernu Batzordeari aurkeztea berrets ditzan.

j) Administrazio ahal hauek egikaritzea:

— Organismo autonomoari egotzitako zuzenbide publikoko diru sarrerak biltzeko ahalak.

— Erakundeko langileen gaineko diziplinazko ahalak, legeek ezarritakoari jarraituz.

— Zehatzeko ahalak.

k) Auzibide zibilera edo lan auzibidera jo aurreko erreklamazioak ebaztea.

l) Estatutu hauekin bat etorritako organismo autonomoaren lehendakariari dagozkion gainerako ahalak, eta beste organo batzuei berariaz esleitu ez zaizkien beste batzuk.

3. Lehendakariak artikuluko honetako 2. zenbakiko f), g), h), j) eta k) letretan aurreikusitako eskumenak organismo autonomoaren gobernu eta zuzendaritzako beste organo batzuei esleitu ahal izango die.

4. Aparteko kasuetan, atzeratu ezin diren premia larriko kasuetan, lehendakariak edozein eratako egintzak egitea eta errekursoak aurkeztea erabaki dezake Administrazio Publikoko Organoetan eta Justizia Auzitegietan, eta horren berri eman beharko dio Gobernu Batzordeari.

5. Lehendakariak bere eskumenei jarraituz abian jartzen dituen administrazio egintzen aurka errekurtsoa jarri ahal izango da 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, eta 1998ko uztailaren 3ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutakoari jarraituz.

15. artikulua. Lehendakariordearen identitatea eta eskuduntzak.

1. Organismo autonomoko lehendakariordea zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko zuzendari nagusi bat izango da.

2. Eskuduntza hauek dagozkio lehendakariordeari:

a) Lehendakariaren ordezkio izatea Gobernu Batzordeko lehendakari funtzioetan, lehendakaria kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean.

b) Lehendakariak eskuordetzen dizkionak organismo autonomoaren jarduketan esparruan.

3. Lehendakaria kanpoan denean, organismo autonomoaren ordezkaritza egokituko zaio.

4. ATALA. KUDEATZAILEA.

16. artikulua. Kudeatzailearen identitatea, izendapena, kargutik kentzea eta ordezteak.

1. Kudeatzailea zuzendaritza arrunteko organo gorena da, eta Gobernu Batzordeak izendatu eta kargutik kenduko du.

2. Kudeatzaile kargua Gobernu Batzordeko kideen gehiengo absolutuak onartu ondoren izendatuko da, eta administrazio publikoko karrerako funtzionario bat izango da, A sailkapen taldekoa, A1 azpitaldekoa. Izendatzeko, merezimendu eta gaitasun printzipioak, egokitasun irizpideak, eta publizitatea eta lehia bermatzen duten prozedurak erabiliko dira.

3. Kudeatzaileak karguari utziko dio Gobernu Batzordeko kideek gehiengo absolutuz erabakitzen dutenean.

4. Postua hutsik geratuz gero, edo kudeatzailea kanpoan edo gaixorik egonez gero, edo eragozpen legitimoren bat izanez gero, Gobernu Batzordeak izendatutako eta aurreko apartatueta zehaztutako baldintzak betetzen dituen organismo autonomoko langile batek ordeztuko du.

17. artikulua. Kudeatzailearen funtzioak eta egintzen izaera.

1. Funtzio hauek dagozkie kudeatzaileari:

- a) Zuzendari lanak egitea eta organismoaren administrazio eta kudeaketa arrunta egitea.
- b) Organismo autonomoa kudeatzea, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsitako aurrekontuen arabera.
- b) Planak eta programak garatzea, Gobernu Batzordeak jarritako helburuak benetan lor daitezzen.
- d) Organismo autonomoaren aurrekontua aurreproiektua prestatzea.
- e) Era guztietako zerbitzu teknikoak eta laguntzakoak bultzatzea, zerbitzu guztien eraginkortasun osoa lortzeko, eta plangintza orokorraren beharretara egokitzea.
- f) Organismo autonomoaren jarduketa berriak edo hobekuntzak proposatzea.
- g) Arreta berezia jartzea erabiltzaileekiko eta familiartekoekeko harremana egokia eta kalitatekoa jasotzen dutela zaintzea.
- h) Organismo autonomoa ordezkatzeko beste erakunde batzuen aurrean, bere kargu uzten dizkieten gaietan.
- i) Kontratazio espedienteak onartzea, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko titularrarentzat adierazitako zenbatekoraino; ahalmen honen barruan inplizituki sartzen dira gastuak onartzeko ahalmena eta kontratuen arloko legeriak kontratazio organoari ematen dizkion gainerako ahalmen guztiak.
- j) Hitzarmenak sinatzea beste administrazio publiko batzuekin zein erakunde pribatuekin, organismo autonomoaren funtzioen esparruan, baldin eta gastua Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duten departamentuko zuzendari nagusientzat ezarritakoa baino handiagoa ez bada.
- k) Gastuak xedatzea eta eskumendun organoek baimendutako ordainketak egitea, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko zuzendari nagusientzat adierazitako zenbatekoraino, eta Gobernu Batzordeari edo lehendakariari kontu ematea.

l) Ondare erantzukizuneko erreklamazio espedientean hasi eta izapidetzea.

m) Langile politika aplikatzea eta berehalako buruzagitza gauzatzea.

n) Gobernu Batzordeari eta lehendakariari informazioa prestasunez ematea egin duen lanari eta organismo autonomoaren kudeaketan dagozkion gaiei buruz.

ñ) Estatutu hauek ematen dizkioten gainerako eskuduntzak, eta Gobernu Batzordeak edo lehendakariak ematen dizkionak.

Kudeatzaileak 2. administrazio ahalen egikaritzan ematen dituen egintzen aurka, gora-jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da organismo autonomoko lehendakariaren aurrean.

IV. KAPITULUA. ONDARE ERREGIMENA

18. artikulua. Foru organismo autonomoaren ondarea.

1. Organismo autonomoaren ondarea osatuko dute Foru Aldundiak atxikiko dizkion ondasunek eta eskubideek, eta ondare horren erregimena izango da 1996ko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondareari buruzkoak, eta aplikatzekoa den gainerako araudiak ezarritakoa.

2. Nolanahi ere, organismo autonomoaren ezaugarriak eta helburuak kontuan izanik, edozein pertsonak edo entitatek ematen dizkion ondasun eta eskubideak sar ditzake ondarean, eta horiek askatasun osoz xedatzeko eskumena izango du.

19. artikulua. Inbentarioa.

1. Organismo autonomoak bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien –bere titulartasunekoak diren, erabiltzen dituen edo atxikita dituen guztien– inbentarioa egingo du eta eguneratuta mantenduko du; eta urtero bidaliko du finantza arloko eskumena duen departamentura.

2. Inbentarioa, kasua denean, urtero berretsiko da abenduaren 31n, eta Gobernu Batzordeari aurkeztuko zaio, onar dezan.

V. KAPITULUA. LANGILEEN ERREGIMENA

20. artikulua. Langileak.

1. Organismo autonomoko langileen plantilla hauek osatuko dute:

a) Lege izendapenaren arabera organismo autonomora lotuta dauden funtzionarioek.

b) Legez ezarritako moduan aukeratuta eta idatziz egindako lan kontratuaren arabera erakundean soldatapean dauden lan kontratupeko langileek.

c) Zerbitzuari atxikitako langile funtzionarioek eta lan kontratupekoek. Eskualdatze hitzarmenean eta sinatutako itunetan jasotakoaren arabera, tokiko entitateen zerbitzura dauden langileak izango dira, zerbitzura atxikiak eta organismo autonomoan lan egitera sartu direnak.

2. Organismo autonomoko langileen lan baldintzak hitzarmen kolektiboaren edo/eta akordio arautzailearen bidez onartuko dira.

3. Lanpostu zerrenda autonomiadun erakundeak bere antolaketaren egitura jendaurrean jar-tzeko eta lanpostuak ordenatzeko erabiltzen duen tresna da.

VI. KAPITULUA. EUSKARAZ JAKITEA ETA EUSKARA ERABILTZEA

21. artikulua. Euskaraz jakitearen eta egitearen erregimena.

1. Organismo autonomoaren hizkuntz irizpideak Gipuzkoako Foru Aldundian euskararen erabilera arautzeko ezarritako printzipio eta arauekin bat etorriko dira. Horretarako, Gobernu Batzordearen eskumena izango da hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko urteroko plana proposatzea Diputatuen Kontseiluan onar dadin.

2. Gobernu Batzordeko kideek behar adinako euskara maila izan beharko dute.

VII. KAPITULU. EKONOMIA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

1. ATALA. KONTRATAZIOA ETA OGASUNA.

22. artikulua. Kontratazio erregimena.

1. Sektore publikoko kontratuen arloko legeriari lotuko zaio organismo autonomoa kontratuak egiteko, alde horretatik administrazio publikotzat jotzen baita.

2. Sektore Publikoko kontratuen arloko legeriatik kanpora geratuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiak organismo autonomoari prestazio jakin bat enkargatzeko egiten diren negozio juridikoak.

23. artikulua. Foru organismo autonomoaren baliabide ekonomikoak.

Organismo autonomoaren baliabide ekonomikoak honela osatuko dira:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Orokorretan berariaz esleitutako kontsignazioak.
- b) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta baloreak.
- c) Bere ondarearen produktuak eta errentak.
- d) Organismo autonomoak emandako zerbitzu eta jarduerengatik erabiltzaileek ordaintzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- e) Administrazio edo entitate publikoetatik etorritako transferentzia korronteak eta kapital transferentziak.
- f) Entitate publikoek, pribatuek eta partikularrek emandako diru laguntzak, ekarpenak, dohaintzak, legatuak eta bestelakoak, eta, bereziki, zuzenean organismo autonomoarekin erlazioa dutenek emandakoak.
- g) Organismo autonomoaren titulartasuneko zehapen ahalmenak egikaritzuz ezarritako zehapenetatik lortutako diru sarrerak, halakorik denean.
- h) Organismo autonomoak lor lezakeen beste edozein baliabide.

2. ATALA. KONTABILITATEA ETA KONTROLA.

24. artikulua. Erregimen orokorra.

1. Aurrekontu erregimenari dagokionez, organismo autonomoa lotuko zaio martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearenak, haren ordeztu onartzen den arauak, eta, oro har, aplikatzekoak zaizkion gainerako lege edo araudi xedapenek ezarritakoari.

2. Era berean, organismo autonomoak kontabilitate publikoaren erregimena izango du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko finantza eta aurrekontuen erregimena erregulatzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

25. artikulua. Kontrol erregimena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasuna eta finantza arloko eskumena duen departamentuak egingo du organismo autonomoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren kontrola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko finantza eta aurrekontuaren erregimena erregulatzen duen araudiaren arabera.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak kontrolatuko du organismo autonomoaren eraginkortasuna. Kontrol horren xedea izango da egiaztatzea helburuak zenbateraino ari diren betetzen eta esleitutako baliabideak egoki erabiltzen diren.

3. ATALA. AURREKONTU ERREGIMENA.

26. artikulua. Aurrekontua egitea eta onartzea.

1. Organismo autonomoak, Gobernu Batzordearen bidez, aurrekontuaren aurreproiektu proposamena onartuko du urtero, Gipuzkoako Foru Aldundiak hurrengo ekitaldirako ematen duen ekarpen aurrerapenetik abiatuta, ogasun eta finantzetako eskumena duen departamentuak erabakitako egiturarekin.

2. Kudeatzaileak prestatutako aurreproiektuaren proposamena, Gobernu Batzordeak onartu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan sar dadin.

27. artikulua. Urteko kontuak.

Gobernu Batzordeari aurkeztuko zaizkio urteko kontuak, onar ditzan. Organismo autonomoko lehendakariak proposamena Gobernu Batzordera eramango du, aurrekontuei buruzko araudian ezarritako moduan.

VIII. KAPITULUA. ORGANISMO AUTONOMOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA ETA DESEGITEA

28. artikulua. Estatutuak aldatzea.

Estatutu hauek aldatzeko, Diputatuen Kontseiluak foru dekretu bat onartuko beharko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

29. artikulua. Organismoa desegitea.

Organismo autonomoa desegiteko, foru arau bat onartu beharko da eta bertan zehaztu beharko dira nork hartuko dituen haren eskubideak eta obligazioak.

Xedapen gehigarri bakarra.

Estatutu hauek garatzeko barne erregimeneko araudia Gobernu Batzordeak egin eta onartu beharko du, eta kideen gehiengo absolutua beharko du horretarako.

Xedapen iragankor bakarra.

10. artikuluko 3. atalean xedatutakoari jarraituz, eta aurreikusitako izendapena egin arte, idazkari zereginak gizarte zerbitzuen eskumeneko departamentuko arlo juridikoko karrerako funtzionario batek egingo ditu.